# ASTE NAGUSIA 2020 SEMANA GRANDE

Donostia/San Sebastián

## ASTE NAGUSIKO IV. ZURRIOLA STREET FOOD
## IV ZURRIOLA STREET FOOD SEMANA GRANDE

## DEIALDIA / LLAMAMIENTO

Aste Nagusia 2020ren harira (abuztuak 8-15, biak barne), Donostia / San Sebastián Festak-ek IV. Zurriola Street Food antolatuko du. Aipatu feria, parte hartzeko interesa agertu ondoren Aste Nagusiko antolatzaileek ondoan ezarritako arauen arabera aukeratutako food truckekin egingo da:

1. **Parte hartzeko eskaria:** Ferian parte hartzeko eskaria egin dezakete kalean elikagaiak egin, saldu eta/edo sustatzen dituzten pertsona fisikoek zein juridikoek, food truck delakoak erabiltzen badituzte horretarako.

2. **Eskariarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Eskaria aintzat hartua izan dadin, ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira, halabeharrez, **2020ko apirilaren 24ko 13:30ak baino lehen**:

   - “**Preinscripción**” izeneko eskari-orria, beteta. Orria Donostia / San Sebastián Festak-ek emango du.
   - **Ibilgailu baten bidez jatekoak eta/edo edariak saltzeko enpresak duen Osasun baimen eguneratuaren kopia.**
   - Prestatutako ibilgailuaren argazkiak, ekitaldiren baten gauzatzearen barruan.
   - Salgai egongo diren produktuen zerrenda.
   - Enpresaren curriculuma.

3. **Kokapena:** Aste Nagusiko IV Zurriola Street Food Kursaaleko Urumea terrazan kokatuko da. Antolakuntzak hainbat festa jarduera osagarriak antolatuko dit.

4. **Aukeraketa:** Aurkeztutako dokumentazioari kasu eginez, horretarako osatutako epaimahai batek, aukeraketa egingo du eskari guztien artean. Ondoko irizpideak hartuko ditu aintzat:

Con motivo de la Semana Grande 2020 (8-15 de Agosto, ambos incluidos) Donostia/San Sebastián Festak tiene la intención de realizar la IV Zurriola Street Food. La citada feria se realizará con las Food Truck que, habiendo mostrado su interés en participar, sean seleccionadas por la organización de la Semana Grande en base a los siguientes criterios:

1. **Solicitud de participación**: Podrán solicitar la participación en la feria todas aquellas personas físicas o jurídicas que se dediquen a la producción, comercialización y/o promoción de alimentos en la vía pública, utilizando para ello las denominadas food trucks.

2. **Documentación a presentar con la Solicitud:** Será condición previa sine qua non para la toma en consideración de la solicitud la presentación de la documentación que a continuación se indica, **antes del día 24 de Abril de 2020 a las 13.30 horas**:

   - Solicitud de participación en impreso denominado “**Preinscripción**” facilitado por Donostia/San Sebastián Festak
   - **Copia del permiso o autorización Sanitaria de la empresa para la venta ambulante en vehículo de alimentos y/o bebidas, en vigor.**
   - Fotos del vehículo acondicionado durante el desarrollo de un evento.
   - Carta de productos que pondrán a la venta
   - Curriculum de la empresa.

3. **Ubicación:** La IV Zurriola Street Food se ubicará en la terraza Urumea del Kursaal. La Organización programará actividades festivas como complemento de las food trucks.

4. **Selección:** Un jurado nombrado al efecto realizará la selección entre todas las solicitudes presentadas, ateniéndose a la documentación presentada. Los criterios que tendrá en cuenta serán los siguientes:

IFK-CIF Q2000541I

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

- **IRIZPIDE TEKNIKOA (3 puntu)**

Eskaturiko ibilgailu baten bidez jatekoak eta/edo edariak saltzeko enpresak duen Osaaun Baimena izatea.

Baldintza hau ez betetzeak eskaria ez onartzea suposatuko du.

- **ANTOLAKUNTZA IRIZPIDEAK (4 puntu)**

1. Eskaintza gastronomikoaren orijinaltasuna (puntu 1)
2. Ferian parte hartzeko eskaintzen den estetika (puntu 1)
3. Ekitaldia hartuko duen ingurunean eskaintza gastronomiko hori ez egotea edo oso urria izatea (puntu 1)
4. Enpresaren ibilbidea (puntu 1)

Egindako aukeraketak feriaren aniztasuna bermatzea izango du helburu, eskainitako gastronomia estiloei dagokienean, eskaintza produktu mota berezi batera muga ez dadin.

- **IRIZPIDE OSASUNGARRIAK ETA JASANGARRITASUNEKOAK (3 puntu)**

1. Janariak 0 kilometroko produktuetan oinarrituta lantzeko konpromisoa (puntu 1)
2. Eskaintza gastronomikoa osatzen duten produktuetako bakoitzaren osagaiak eta kaloriak azaltzen dituen kartaren aurkezpena (puntu 1)

   Adibidea: Hirugihar, arrautza eta gazta ogitartekoa. Osagaiak: hirugiharra, Havarty gazta, arrautza frijitua, ogi opila. Cal.: 510
3. Kartan agertzea elikadura-arazoak dituzten pertsonentzako (zeliakoak, diabetikoak…) aukerak (puntu 1)

Hautaketa egin ondoren, adjudikaziodunek 2020ko Aste Nagusiko IV. Zurriola Street Food-en parte hartu ahal izango dute, eta hauek izango dira bete beharreko oinarriak:

- **CRITERIO TÉCNICO (3 puntos)**

Ser titular del Permiso o Autorización Sanitaria de la empresa para la venta ambulante en vehículo de alimentos y/o bebidas solicitada.

El incumplimiento de este criterio supondrá la no aceptación de la propuesta.

- **CRITERIOS ORGANIZATIVOS (4 puntos)**

1. Originalidad de la oferta gastronómica (1 punto)
2. Estética que se ofrece para la participación en la feria (1 punto)
3. Inexistencia o escasez de la oferta gastronómica en las inmediaciones del lugar en el que se desarrollará el evento (1 punto)
4. Trayectoria de la empresa (1 punto)

La selección que se realice velará por que la feria resultante de la misma tenga una composición diversa en cuanto a estilos gastronómicos se refiere, evitando en todo caso que la oferta se limite a un tipo específico de productos.

- **CRITERIOS DE SALUD Y DE SOSTENIBILIDAD (3 puntos)**

1. Compromiso de elaboración de los alimentos en base a productos km. 0 (1 punto)
2. Presentación de carta explicativa de componentes y calorías de cada producto de la oferta gastronómica (1 punto).

   Ejemplo: Bocata de bacon, huevo y queso. Ingredientes: bacon, queso Havarty, huevo frito, bollo de pan. Cal: 510.
3. Inclusión en la carta de posibilidades para personas con problemas alimenticios (celíacas, diabéticas…) (1 punto)

Realizada la selección, las adjudictarias podrán participar en la IV Zurriola Strret Food Semana Grande 2020, que se regirá por las siguientes bases:



donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

# OINARRIAK ETA BALDINTZAK / BASES Y CONDICIONES

Donostiako Aste Nagusia 2020 (abuztuak 8-15), IV. Zurriola Street Food.
Ferian parte hartzeko oinarriak eta baldintzak:

## OINARRIAK

1. **Inskripzioa:** Lehen adierazitako irizpideen arabera hautatutako pertsona fisikoek edo juridikoek parte hartu ahal izango dute azokan.

2. **Kopurua:** 12 eta 14 bitarteko leku esleituko dira, hauen neurrien eta feriako gunearen arabera.

3. **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Donostiako IV Zurriola Street Food ferian parte hartu ahal izateko ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira, **maiatzaren 22ko 13:30 orduak baino lehen**:

**Dokumentzaio orokorra:**

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Bide publikoan eginiko janari salmenta jarduerak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioa egiaztatzeko agiri eredu normalizatua (Aseguru etxearen datuekin, sinadurarekin eta zigiluarekin). Antolakuntzak eskuratuko duen dokumentua.
- 2020ko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ziurtagiria.
- Ordain fiskaletan 2020an egunean egotearen ziurtagiria.
- Ordain sozialetan 2020an egunean egotearen ziurtagiria.

**Osasun arloko dokumentazioa:**

- “12600n dossier OSASUNA” dokumentua ondo beteta eta sinatuta.
- “12649n aitorpena-declaración” dokumentua ondo beteta eta sinatuta.
- Salduko diren produktuen hornitzaileen zerrenda, dagokien sanitar erregistroekin

**Ibilgailuaren dokumentazioa**

- Ibilgailuaren fitxa teknikoa
- Food truck-aren tentsio baxuko instalakuntzaren memoria teknikoa
- Planoa (instalakuntzak, harraskak, ur garbien eta zikinen depositua…).
- Makina eta ekipoen zerrenda.
- Ibilgailuaren barrualdeko instalazio guztia ikusteko moduko argazkiak.

Semana Grande 2020 Donostia/San Sebastián (8-15 de Agosto), IV Zurriola Street Food.
Bases y condiciones para participar en la feria:

## BASES

1. **Inscripción**: Podrán participar en la feria las personas físicas o jurídicas seleccionadas en base a los criterios anteriormente expuestos.

2. **Número:** Se adjudicarán entre 12 y 14 espacios, según medidas y cabida del espacio de la feria.

3. **Documentación a presentar:** Será condición para la adjudicación de una plaza en la IV Zurriola Street Food de Donostia/San Sebastián la presentación de la documentación que a continuación se indica, antes del día **22 de Mayo de 2020 a las 13.30 horas**:

**Documentación general:**

- Copia del D.N.I. del /de la solicitante.
- Modelo normalizado de certificación acreditativa de contratación de seguro de responsabilidad Civil con cobertura de actividades de venta alimentaria en la vía pública (Completado, firmado y sellado por la Aseguradora). Documento que facilitará la Organización.
- Certificado sobre el Impuesto de Actividades Económicas de 2020.
- Certificado vigente de estar al corriente en el pago de sus obligaciones Fiscales en el año 2020.
- Certificado vigente de estar al corriente en el pago de sus obligaciones Sociales en el año 2020.

**Documentación sanitaria:**

- Documento “12600n dossier OSASUNA” bien completado y firmado.
- Documento “12649n aitorpena-declaración” bien completado y firmado.
- Listado de proveedores de los productos a vender con sus respectivos registros sanitarios.

**Documentación del vehículo:**

- Ficha técnica del vehículo
- Memoria técnica de la instalación de baja tensión de la food truck.
- Plano (instalaciones, lavamanos, depósitos aguas limpias y sucias…)
- Listado de maquinaria y equipos
- Fotos del vehículo en las que se vean todas las instalaciones.

IFK-CIF Q2000541I

4. **Kokapena:** Aste Nagusiko IV Zurriola Street Food Kursaaleko Urumea terrazan kokatuko da. Antolakuntzak hainbat festa jarduera osagarriak antolatuko dit.

5. **Salneurria:** Esleipendun bakoitzak 2.400€ + % 21eko BEZa ordainduko du (2.904 €), ferian jarriko den postu bakoitzeko, feriak iraungo duen 8 egunengatik.

Salneurri honen barnean daude:

1) Parte-hartze kuota.
2) Hozkailuak, salgaiak eta antzekoak instalatzeko/gordetzeko espazio komuna.
3) Sukaldaritza erremintak garbitzeko espazio komuna, harraska eta garbitzeko eta desinfektatzeko produktuez hornitua.
4) 2) eta 3) ataletako ekipamenduetarako elektrizitatea.
5) Edateko urako hartunea. Sarbide programatua izango du depositua bete ahal izateko, bai eta ur zikinak husteko ere.
6) Komunak (WC).
7) Hondakinen garbiketa eta bilketa zerbitzua.
8) Erabilitako olioa biltzeko bidoiak.
9) Edalontzi berrerabilgarriak entregatu, jaso eta garbitzeko zerbitzua, feria amaitu ostean.
10) Gaueko segurtasun zerbitzua kokalekuan.
11) Egitarau berezia.
12) Feriaren antolakuntza, publizitatea eta koordinazioa.

**PREZIOA <u>ANTOLAKUNTZAK FERIAN PARTE HARTZEA ZIURTATU AURRETIK</u> ORDAINTZEAK EZ DAKAR ESKAERAREN ONARPENIK.**

4. **Ubicación:** La IV Zurriola Street Food se ubicará en la terraza Urumea del Kursaal. La Organización programará actividades festivas como complemento de las food trucks.

5. **Precio**: El precio a abonar por cada adjudicatario por puesto en la feria será de 2.400 € + 21% IVA (2.904 €) por los ocho días en los que funcionará la feria.

El citado precio comprende:

1) Cuota de participación.
2) Espacio común para la instalación/guarda de frigoríficos, mercaderías,…
3) Espacio común para la limpieza de utensilios de cocina, provisto de fregaderos y productos de limpieza y desinfección.
4) Fluido eléctrico para los elementos referidos en el apartado 2 y 3).
5) Toma de agua potable en el recinto con acceso programado para reposición de depósitos, así como posibilidad de evacuación de aguas grises.
6) Servicios higiénicos (WC).
7) Servicio de limpieza y recogida de residuos.
8) Abastecimiento de bidones para la recogida de aceite usado.
9) Servicio de entrega, recogida y limpieza de vasos reutilizables una vez finalizada la feria.
10) Servicio nocturno de Seguridad en el recinto.
11) Programación específica.
12) Organización, publicidad y coordinación de la feria.

**EL ABONO DE LA CUANTIA DEL PRECIO <u>ANTES DE LA CONFIRMACION DE LA PARTICIPACIÓN EN LA FERIA POR PARTE DE LA ORGANIZACIÓN</u> NO SUPONE LA ACEPTACIÓN DE LA SOLICITUD.**

IFK-CIF Q2000541I

donostiakultura
Donostia / San Sebastián Festak
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

## BALDINTZAK

### 1. Feriako antolaketa baldintzak

1. **Muntaia eta desmuntaketa:** Muntaia 2020ko abuztuaren 7an egingo da, goizeko 8etatik bukatu arte. Desmuntaketa abuztuaren 16an izango da, ordutegi berberarekin.

2. **Egutegia:**
   Abuztuak 8-15.
   Eguneroko irekiera ordua: 12:00
   Amaiera ordua: 01:30 – 03:30 gunearen programazioaren arabera.

3. **Elektrizitate hargunea:** Donostia/San Sebastián Festak unitateak 5.000Wko argi indarra eskainiko dio food truck bakoitzari. Norbaitek potentzia hau handitzea eskatuz gero, aztertuko egingo da. Ematen bada, eskatzaileak ordainduko du.

4. Jaiaren irudi hobea erdiesteko, postuaren **estetika** zaindu egingo da. Food truck-a eta inguraldea apaintzen saiatu behar da.

5. Antolakuntzak ezarriko ditu **espazio** mugak, bai ibilgailuarentzat, baita food **truck bakoitzak** terraza/jangela moduan jartzeko **ekarriko dituen mahai eta aulkientzat** ere.

6. Tresnerien, kaxen, ontzien,… **biltegiratzea** food trucken barruan, horretarako jarriko den gunean edo esleipendunak jarritako 3 x 3 metroko eta alboak itxita dituen karpa zuri batean. Karpa horrek beharrezkoak diren garbitasun- eta itxura-baldintzak betetzen ez baditu, Antolakuntzak karpa aldatzeko eska dezake.

7. Derrigorrezkoa da **21A-113B eraginkortasuneko su itzalgailua** edukitzea food truck bakoitzaren barruan.

8. Kokalekua **garbi** mantenduko da.
   Zaborrak, sailkatu ondoren, horretarako jarritako edukiontzietan utziko dira.
   Garbitasun baldintza betetzen ez den egun bakoitzeko 200€ko isuna ezarriko da.

9. **Megafonia**: Donostia / San Sebastian Festak-ek programatutako ekitaldietan zehar esleipendunek ezingo dute euren megafonia erabili.
   Jaurtitutako soinua ez da karrankaria izango eta

## CONDICIONES

### 1. Condiciones organizativas de la feria

1. **Montaje y desmontaje:** El montaje se realizará el día 7 de agosto de 2020 desde las 08:00h. hasta su finalización. El desmontaje se realizará con el mismo horario el día 16 de agosto.

2. **Fechas de apertura de la feria**:
   8 - 15 de agosto.
   Hora de apertura diaria: 12:00h.
   Hora de cierre: 01:30 – 03:30h., según programación festiva del espacio.

3. **Toma eléctrica**: Donostia/San Sebastián Festak facilitará una toma de energía eléctrica máxima de 5.000 W de potencia por food truck. Se estudiará la posiblilidad de ampliar la potencia a petición del adjudicatario. Si se concediese, será abonada por la/el solicitante.

4. Se cuidará la **estética** del puesto para una mejor imagen de las fiestas. Se procurará decorar la food truck y su entorno.

5. La Organización establecerá los límites de espacio a **ocupar**, tanto por el vehículo como por las **mesas y sillas que aportará cada food truck** para instalar a modo de terraza/comedor.

6. El **almacenaje** de materiales, cajas, envases,... se hará bien en el interior de las food trucks, bien en la zona que se establecerá a tal efecto, o bien en una carpa blanca de 3x3m. con laterales cerrados (blancos) aportada por el/la adjudicatario/a. La organización podrá exigir el cambio de dicha carpa si no reuniese las condiciones de limpieza e imagen necesarias.

7. Las food trucks deberán contar obligatoriamente con un **extintor de eficacia 21A-113B** en su interior.

8. Se conservará la parcela en perfecto estado de **limpieza**.
   La basura se depositará en los contenedores instalados para tal efecto, previa clasificación de los residuos.
   El incumplimiento del requisito de limpieza por parte del concesionario supondrá una sanción de 200€ por día de incumplimiento.

9. **Megafonía**: No podrá utilizarse megafonía propia durante el desarrollo de los actos programados por Donostia / San Sebastián Festak.
   La emisión de sonido no será estridente y abarcará

IFK-CIF Q2000541I

food truck bakoitzari esleitutako espaziora mugatuko da.
Giroko musika jartzen bada, ezingo da sexista izan, hau da, emakumeak gizonak baino gutxiago direla, sexu-objektu soilak direla edo genero-indarkeria onartzen duela adieraztean.
Ezingo da soinu ekipamendurik erabili feria ireki aurretik eta feria itxi eta gero.

10. **Kartelak**:
Karteltzat ulertzen da idatzizko material oro, erabiltzaile kontsumitzaileari eskaintzen zaion zerbitzuari buruzko informazioa ematen diona (karta, erreklamazio-orria, elikagaien informazioa…)
Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz ofizialak euskara eta gaztelera direnez eta Aste Nagusira atzerritar asko etortzen direnez ere (Frantziatik eta herrialde anglo-saxoietatik gehienbat), honela idatzi beharko dira kartel guztiak:
- Euskaraz eta gazteleraz, derrigorrez
- Frantsesez eta ingelesez, derrigorrezkoa ez bada ere, gomendatua dago.

Antolatzaileek beren laguntza eskainiko diete parte-hartzaileei, aurrekoa posiblea izan dadin.

únicamente el espacio concedido a cada food truck.
En caso de emisión de música ambiente, ésta no podrá ser sexista, en el sentido de que presente a las mujeres como inferiores a los hombres, o como meros objetos sexuales, o que apruebe la violencia de género.
No podrán utilizarse los equipos de sonido en ningún caso antes de la hora de apertura de la feria ni más allá de la hora de cierre de la misma.

10. **Cartelería**:
Se entiende por cartelería, todo aquel material escrito que informe al usuario consumidor sobre el servicio que se ofrece (carta, hoja de reclamaciones, información alimentaria…)
Dado que las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskara y el español y puesto que en Semana Grande se acercan a Donostia/San Sebastián gran cantidad de personas originarias de otros países (principalmente Francia y países anglosajones), todos los carteles deberán redactarse:
- En euskara y español obligatoriamente
- En francés y/o inglés no obligatorio pero recomendado.

La organización pondrá a disposición de los participantes el apoyo necesario para que ello sea posible.

IFK-CIF Q2000541I

## 2. Osasun arloko baldintzak

1. Baimendutako **produktuak** saldu ahal izango dira bakarrik. **Edariei** dagokienez, bakarrik normalean janariarekin batera hartzeko sozialki onartzen direnak (ura, freskagarriak, garagardoa, ardoa, sagardoa…) saldu ahal izango dira. Aste Nagusia babesten duten produktuen markak erabili behar dira ezinbestean, Donostiako Aste Nagusiaren antolakuntzarako ematen duten laguntza hartu behar baita kontuan. Erabat debekatuta dago graduazio altuko edari alkoholdunen eta haien arteko konbinazioen salmenta, feria jendearentzako zabalik dagoen ordutegi osoan.
2. Bertan erabiliko den **ontziteria** behin erabiltzeko eta biodegradagarria izango da.
3. Elikagaiak manipulatzeko beharrezkoak diren erreminten hiru ordezko oso behar izango dira.
4. Food trukck-ek osagai kimikorik gabeko **intsektuak hiltzeko aparatuak** eraman behako dituzte.

## 2. Condiciones sanitarias

1. Sólo podrán ponerse a la venta los **productos** para los que se haya concedido la autorización. En cuanto a las **bebidas**, sólo se podrán vender aquellas bebidas socialmente admitidas para acompañamiento de alimentos (agua, refrescos, cerveza, vino, sidra…), siendo preceptiva la utilización de las marcas de producto patrocinadoras de la Semana Grande, habida cuenta sus aportaciones a la organización de la Aste Nagusia donostiarra. Queda terminantemente prohibida la venta de bebidas alcohólicas de alta graduación, así como sus combinaciones, durante todo el horario de apertura de la feria al público.
2. La **vajilla** a utilizar será de uso desechable y biodegradable.
3. Se requerirán tres recambios completos de utensilios necesarios para la manipulación de los alimentos.
4. Las food trucks deberán estar provistas de **aparatos insectocutores** de naturaleza no química.



**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

### 3. Ingurumen baldintzak

1. **Birziklatzea**: Olioa edo antzekoak lurrera bota edo isurtzea saihestuko da (lurra estaliko da). Soberan gelditzen den erabilitako olioa, antolakuntzak jarri eta jasoko dituen ontzietan bilduko da.
Beirarik erabiliz gero, hartarako jarritako edukiontzietan utzi beharko da. Ezingo da kristalezko edalontzirik erabili.

2. **Berrerabiltzea:**

- **Edarientzako edalontzi berrerabilgarriak:** 2020ko Aste Nagusian parte hartuko duten food truck-ek derrigorrez eta esklusiboki, antolatzaileek emango dizkieten edalontzi berrerabilgarriak erabili beharko dituzte.

  Esleipendunek behar dituzten edalontziak eskatu diezaiekete antolatzaileei, beti ere 375eko (400 zk-koak) multzotan. Antolakuntzak dituen edalontzi kopurua aztertu ondoren, eskatzaile bakoitzari dagokion edalontzi kopurua banatuko dio, eta honek euro bat ordaindu beharko du jasoko duen edalontzi bakoitzeko. Edalontzi horiek edari guztietarako erabili beharko dira. Edalontzi bakoitzeko, Donostia/ San Sebastian Festak-i ordaindutako kopuru bera kobratuko dute, hau da, 1 €.

  Antolakuntzak edalontziak jasotzeko puntu bat jarriko du; esleipendunek, edalontzi gehiago behar dituztenean, bertara jo ahal izango dute eta unitate bakoitzeko euro bat ordainduta eskuratu ahal izango dituzte. Aste Nagusia amaituta, saldu ez dituzten edalontziak aipatutako guneetan itzuliko dituzte, jatorrizko kaxetan, zenbatuta eta garbi. Aipatua abuztuaren 16 igandean egingo dute, ezarritako ordutegian.

  Donostia/San Sebastián Festak unitateak, itzulitako edalontziak zenbatuko ditu eta, itzuli dituen taldeari, zenbatutako kopuruari dagokion ordainagiria emango dio (garbi, lehor eta berrerabiltzea galarazten ez duen kalterik gabeko edalontzien kopurua). Itzulitako edalontziei dagokien ordainketa esleipendunak emandako kontu korrontean egingo da.
  **<u>Ezingo da beste edonolako edalontzirik erabili.</u>**

- **Salgai jarritako beste produktu mota batzuentzako ontziak:** Antolatzaileek azokako parte-hartzaileei ontzi berrerabilgarriak eta/edo birziklagarriak erabiltzea gomendatzen die, gure ingurunea jasangarriagoa izan dadin.

### 3. Condiciones medioambientales

1. **Reciclaje**: Se evitará cualquier tipo de vertido (aceite y similares) al pavimento (colocar protectores en el suelo). La grasa sobrante deberá depositarse en los bidones que serán suministrados y recogidos por la organización. En caso de utilizarse vidrio deberá depositarse en los contenedores que se instalarán al efecto. No podrán utilizarse vasos de cristal.

2. **Reutilización:**

- **Vasos reutilizables para bebidas:** Las food trucks que se instalen en la Semana Grande 2020 deberán utilizar, ineludiblemente y de forma exclusiva, los vasos reutilizables que en número suficiente les serán entregados por la organización.

  Las adjudicatarias podrán solicitar a la organización los vasos que precisen en números múltiplos de 375 (400 cc). La organización, comprobadas las existencias de vasos entregará a cada solicitante el número que le corresponda, debiendo éste abonar un euro por cada uno de los vasos a recibir. Estos deberán utilizarse para las diferentes bebidas, cobrándose por ellos la misma cantidad abonada a Donostia/San Sebastián Festak, esto es, 1€.

  Donostia/San Sebastián Festak instalará un punto de aprovisionamiento de vasos; las adjudicatarias podrán acudir al mismo cuando precisen nuevos vasos, en el horario que se establezca, retirándolos previo pago de 1€ la unidad. Una vez finalizada la Semana Grande, los vasos que no se vendan serán devueltos en el citado punto, en sus cajas originarias, contados y limpios, el domingo 16 de agosto en el horario que se establezca.

  Donostia/San Sebastián Festak recontará los vasos devueltos y entregará al adjudicatario correspondiente un recibo con la cantidad computada. (Número de vasos devueltos, limpios, secos y sin daños que impidan su reutilización) El abono de la cantidad correspondiente se realizará en la cuenta corriente facilitada por el adjudicatario.
  **<u>No se podrá utilizar ningún otro tipo de vaso.</u>**

- **Envases para otro tipo de productos puestos a la venta:** La Organizadora recomienda a las y los participantes en la feria la utilización de envases reutilizables y/o reciclables para la venta de sus productos en aras de una mayor sostenibilidad de nuestro entorno.

IFK-CIF Q2000541I

IFK-CIF Q2000541I

## 4. Erabiltzaileen eskubideen errespetua bermatzeko baldintzak

1. **Ordainketak:** Faktura bana egingo da salmenta bakoitzeko. Datafonoak eskainiko dira ere, ordainketa elektronikoak egiteko aukera izan dezaten erosleek.
2. **Dokumentazioa:** Food truck bakoitzak erreklamazio-orriak eta bere produktuen alergenoen zerrenda izango ditu bezeroen esku.
3. **Informazioa:** Salgai dauden produktuak adierazteko kartelak jarriko dira, beren salneurriez lagunduta. Ondokoak jarriko dira ere ikusgai:
    - Adingabeei alkohola saltzeko debekua.
    - Erreklamazio-orrien existentzia
    - Alergenoen zerrendaren existentzia.

## 4. Condiciones derivadas del respeto a los derechos del consumidor

1. **Pagos**: Se exigirá la emisión de facturas en cada venta, así como la aportación de datáfonos que garanticen al comprador la posibilidad de realizar los pagos electrónicamente.
2. **Documentación**: Cada food truck deberá contar con Hojas de reclamaciones y declaraciones de alérgenos de sus productos a disposición de la clientela.
3. **Información**: Se colocarán carteles indicadores de los productos que se ofrecen con sus respectivos precios de venta al público. Así como los que hacen referencia a:
    - La prohibición de vender alcohol a menores
    - La existencia de Hojas de reclamaciones
    - La declaración de alérgenos.

## INTERPRETAZIOA

Parte hartzearen eskabidea aurkezteak ARAU HAUEK GUZTIAK onartzea dakar. Arauak interpretatzerakoan zalantzarik izanez gero, feriaren antolatzaileek ebatziko dute.

## INTERPRETACIÓN

La solicitud para la participación supone la total aceptación de las presentes CONDICIONES. Cualquier duda sobre su interpretación, corresponderá resolver a la Organizadora de la Feria.

## ARAU HAUSTEAK

Oinarri hauetan eta/edo aplikatu beharreko araudi orokorrean adierazitako baldintzetako edozein betetzen ez bada, food truck-a instalatzeko baimena kenduko da, azokako gainerako egunetarako itxi egingo da eta ezin izango da hurrengo ekitaldietan parte hartu. Parte-hartze kuota ez da inolaz ere itzuliko.

Ez-betetzea detektatuz gero, Donostiako Udaleko Osasun Publikoaren eta Animalien Ongizateko Zerbitzuak zehapen-espedientea ireki ahal izango dute, eta partaidetza-kuota atxikiko du ebatzi arte.

## INCUMPLIMIENTO

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones expresadas en estas bases y/o en la normativa general de aplicación, conllevará la retirada del correspondiente permiso de instalación de la food truck, el cierre de la misma para el resto de la feria y la imposibilidad de participar en próximos eventos. En ningún caso se devolverá la cuota de participación.

Detectado el incumplimiento, la Organizadora y/o el Servicio de Salud Pública y Bienestar Animal del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, podrán abrir el expediente sancionador oportuno.

## APLIKAGARRIAK DIREN ARAUDIAK

- Ikuskizun publiko eta jolas jarduerei doakien Abenduaren 23ko 10/2015
- Apirilaren 7an 1/2016an Adikzioen eta droga menpekotasunen gaineko arreta integralari buruzkoa.
- Donostiako adikzio plana 2017-2021.
- Euskararen Erabileraren Normalkuntzari buruzko 10/82 Oinarrizko Legea.
- Donostiako Udaleko Euskararen Erabileraren Normalkuntza Plana
- Donostiako Udalaren 2014-2018 emakumezkoen eta gizonezkoen Berdintasuneko III. Plana.
- 2004ko apirilaren 29ko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, elikagaien higieneari buruzko 852/2004 (EE) Erregelamendua.
- 2011ko urriaren 25eko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, elikadura-informazioari buruzko 1169/2011 (EB) Erregelamendua.
- 2015eko otsailaren 27ko, elikadura-informazioari buruzko 126/2015 Errege Dekretua.

Debekatua dago alkohola 18 urtez azpikoei saltzea. Food truck-etan edariak zerbitzatzen lanean dihardutem guztiek 18 urte edo gehiago izan beharko dituzte. Agintari eskudunak, edozein unetan, NANa eskatu ahal izango die goian aipatutakoa betetzen ari diren ala ez egiaztatzeko.

## NORMATIVAS DE APLICACIÓN

- Ley 10/2015 de 23 de Diciembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas
- Ley 1/2016, de 7 de abril, sobre Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
- Plan de adicciones de Donostia/San Sebastián 2017-2021.
- Ley Básica 10/82 de Normalización del Euskera.
- Plan vigente de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.
- III Plan de Igualdad entre mujeres y hombres 2014-2018 del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.
- Reglamento (CE) No 852/2004 del Parlamento Europeo y del Consejo de 29 de abril de 2004 relativo a la higiene de los productos alimenticios.
- Reglamento (UE) N o 1169/2011 del Parlamento Europeo y del Consejo de 25 de octubre de 2011 sobre información alimentaria.
- Real Decreto 126/2015, de 27 de febrero de información alimentaria.

Queda terminantemente prohibida la venta de alcohol a menores de 18 años. Todos aquellos que participen en las labores de servicio de bebidas en las food trucks deberán ser mayores de 18 años. La autoridad competente podrá en cualquier momento solicitarles la exhibición del DNI para comprobación de lo anteriormente establecido.

Donostia/San Sebastián, apirila 2020 abril

IFK-CIF Q2000541I

donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN